

Azaroaren 30ean aldarri argi batekin atera ginen kaleak hartzera. Euskal Herrian zaintza sistema publiko duina behar dugu, langileen eta erabiltzaileen baldintza justuak bermatuko dituen. Izan ere, Euskal Herriko zerbitzu publikoak merkantilizatuta daude, enpresa pribatuen etekinen mesedetara, eta ez dituzte dauden beharrak asetzen; zaintza lan sektorea negozio bat da, ordaindu dezakeenak soilik jaso dezakeena. Eta noski, zaintza lan hauek prekarizatuak, feminizatuak, familiarizatuak eta arrazializatuak daude, egungo sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkalaren menpe. Horregatik ohiukatu genuen azaroaren 30ean beharrezkoa zela zaintza sistema publiko komunitario bat eraikitzea.

Hilabete batzuk pasa dira, eta Euskal Herriko Mugimendu Feministak egindako eskakizunak berresten ditugu: Martxoak 8 hontan, zaintza sistema publiko eta komunitario baten alde atera gara kalera. Atzeritartasun Legea deuseztatzea exigitzen dugu. Lan-baldintza eta pentsio duinen alde ohiukatu nahi dugu. Eta biolentzia matxista salatu.

Euskal Herrian, 2024ak daramatzen 2 hilabetetan, dagoeneko salatu dira Tolosako osteopatia kontsulta batean jazarritako sexu erasoak; Zarautzen gizon batek neska adingabe bati egindako sexu erasoak; salatu da eskubaloiko entzenatzaile batek adingabeko bati egindako erasoak; Altsasuko futbol taldeko emakumeei aldageletan grabatzen saiatu izana; salatu da Azpeitian emakume bat bortxatu dutela; Eta salatu da debar batek Berritxun emakume bati burututako sexu jazarpa.

Deban ere ez gaude salbu, argi dago. Eta ez gara babestuta sentitzen. Gaur hemen salatu nahi dugu, udaletik kolokan jarri dituztela feminismoak oinarrizkotzat dituen hainbat ideia: Jaietan eraso matxistarik onartuko ez zela zioen kartel bat udaletxeko balkoian jartzeari uko egin zioten hasiera batean. Gero, jaietan eman ziren erasoak ez salatzea erabaki zuten, eta debar batek Berritxun burututako erasoaren aurrean ere ez ziren posizionatu. Azkenik, Liburutegiak denontzat taldearen eskakizunen aurrean ere entzungor egin dute, umeak eta hauen zaintzaileak, gehien bat emakumeak, baztertzan dituzten politikak mantenduz. Galdera bat Debako Udalari: Zeinekin zaudete? Feminismoa eguneroko borroka bat da eta gaurkoa bezalako egunetan egitarau bat antolatzea zurikeria hutsa.

Guk egunero-egunero Deba espazio seguru eta feminista bat izan dadin borrokan jarraituko dugu.

Borroka egingo dugu zaintza sistema publiko komunitario baten alde.
Borroka egingo dugu emakumearen lan baldintza duin baten alde.

Erasorik ez erantzunik gabe.
Gora borroka feminista!!!!

<https://www.argia.eus/indarkeria-matxista>